


# Heinz Dieterich

Kubako erregimenaren aldekoa da Heinz Dieterich. “Nire komandante” esaten dio Fidel Castrori, ez du Coca-Colarik edaten eta Irlako Alderdi Komunistako zenbait kideren adiskidea da, Raúl Castro tartean. Mexikon bizi den alemaniar hau Gizarte Zientzian eta Ekonomian doktore da, eta XXI. mendeko sozialismoaz teorizatzeaz gain *Kuba Fidelen ostan. Iraultzak iraugo ote du?* liburua idatzi du, beste askoren artean. Lan horretan, Fidelek 2005eko azaroaren 17an esandakoari heltzen dio: “Prozesu sozialista itzul daiteke”.

LEIRE VENTAS

Argazkiak: Orus Villacorta



## «XXI. mendeko sozialismoa zibilizazio nagusia izango da»

Hasteko, hel diezaiozun Kubako sistema sozialista eror daitekeen hipotesiari. Fidelek berak esan zuen. Eta gehitu zuen: “Guk geuk suntsi dezakegu iraultza”. Ereduaren iraupenerako arriskutsuagoak al dira Kubako Alderdi Komunistak hartuko dituen neurriak, AEB eta merkatu-ekonomia baino?

Badaude hainbat kanpo-faktore Kubako orain arteko sistema arriskuan jartzen dutenak. Baina barnekoak dira garrantzitsuenak, eredu historikoa bideraezina egiten dutenak. Kubako gazte-riak, esaterako, ez du zertan aurreko belaunaldiaren balio sistema bera izan beharrik. Eta ez du kontrolerako zenbait metodo onartzen: hoteletan ezin egotea, zergak dibisatan ordaintzea... Gainera, 40 bat mila kubatar dago Venezuelan. Bere burua sozialistatzat duen herrialde

batean bizi dira, XXI. mendeko sozialista, eta Kuban ez dituzten askatasun burges guztiak dauzkate han. Eta gainera, soldata altuak. Kubarentzako konponbideak, nire ustez, honako elementuak behar ditu: Venezuelako eta Txinako ereduak eutsi ekonomia suspertzeko, herriaren parte-hartzea bermatu, eta Alemaniako Errepublikak Demokratikoaren eta Sobiet Batasunaren akatsetatik ikasi.

**Porrot egin zuten eredu estatuzentrikoen akatsetatik ikasi behar dela diozu. Horrekin liderra galdu izana gaindi daitekeela uste al duzu?**

Baietz uste dut. Venezuelan ez bezala, Kubako sistema politikoa erabat instituzionala da. Hau da, Fidel gabe ere estatu aparatuek funtzionatzen jarraituko du, bera balego bezala. Faltako

## ● Heinz Dieterich

dena da Gobernuako sektore kontserbadoreari aurre egiteko indar moralala eta sormena.

Fidelek sistema arriskuan egon zitekeela esan zuenean, aukera hau planteatu baino ez zuen egin. Zure ustez, baina, ordurako konponbidea ezagutzen zuen. Estatista ona denez, prozesuak behar duen denbora hartu nahi zuela diozu. Ez al da arriskutsua denbora hori hartzea? Kanpofaktoreei abantaila hori ematea? Trantsizio egoeran gertaerak azeleratu egiten dira. Eta horretaz jabetzea ezinbestekoa da. Kubak oso denbora gutxi dauka aldaketak egiteko. Hainbat arrazoiengatik. Batetik, Hugo Chávezen edo Evo Moralesen euskarria eroriz gero, Irlako ekonomiaren gainbehera litzateke. Eta bestetik, herriaren itxaropena ez da betiko. Gobernuak irabazien, etxebizitzaren, garraio bideen arazoak konpontzea nahi dute kubatarrek. Kubak hiruzpalau urte ditu bere sistema garatu dezakeela frogatzeko. Bestela oso krisi arriskutsuan murgilduko da.

### Kapitalismoan amaituko duen krisian.

Nik beti diot: hemendik aurrera XXI. mendeko kapitalismoak edo XXI. mendeko sozialismoak baino ezingo du izan. Ez dago gaur sozialismo historikoarentzat tarterik, joan den mendekoa baita.

**Raúl Castrok ba al du denbora faktore honen kontzientziarik? Presa kontuan hartuta ari al da jokatzeko?** Lider ororen arazoa da oinarri sozialetik urrun dagoela. Honen tenperatura politikoaz daukan irudia, beraz, ez da izaten fidagarria. Psike kolektiboaren interpretazioan errealista izatean dago gakoa. Eta horretan uste dut Raúl Castro beste zenbait lider baino errealistagoa dela.

**Kuban ustelkeria maila altua da. Fidelek berak esan zuen. Ez al da hau ekonomia aldaketarako oztopo handiegia?**

Kuban aldaketarako oztopo handiena inertzia ideologikoa da. Sozialismoaren inguruko auzian ez da ideien berrikuntzarik izan azken hamarkadatan. Auzi publikoa da, gainera, erregimenak gehien kontrolatzen duen sektorea. Jipoitu egingo naute kubatarrek hau irakurtzen dutenean!

**Dena den, ustelkeria hau ez al da etika iraultzailea ahultzen ari den seinale?**

Bai. Baina zergatia zein den ikusi behar da. Kubako ustelkeriaren kausa ekonomia arazoak dira. Hauek



estatubatuarren blokeoarekin dute zerikusia, baina baita Kubako sistema ekonomiko disfuntzionalarekin ere. Sistemak ez du funtzionatzen, ez baita gai landarra modu materialean ordaintzeko. Hornikuntza arazoak dakartza honek.

**Venezuelan bizi ostean Kubara bueltatzen diren gazteez ari zinen lehen. Eta baita gaurkoa ez den beste sistemarik ezagutu ez dutenez –iraultzarekin jaio zirenez– ere. Hauek iraultza defendatzeko prest leudeke?**

Badago honi erantzuteko ebidentzia enpiriko historikorik. Ez Alemaniako Errepublika Demokratikoan, ez Sobiet Batasunean, gehiengoak ez zuen sistema kapitalista nahi. Euren ereduaren egitura aldaketa nahi zuten. Kuban berdin. Baduten

egonkortasuna, nazio duintasuna, hezkuntza nahi dute kubatarrek, baina bizi kalitatea hobetuko duten elementuak erantsi nahi dizkiote moldeari: parte-hartze eta askatasun gehiago. Sozialismo zaharraren osagai batzuei eutsi nahi diete, baina oraingo erregimena etengabe hedabideetan ikusten dituzten munduko baldintzekin adostuz.

Heinz Dieterichek eredu berri honen oinarriak ezarri zituen XXI. mendeko sozialismoaren teoria sortu zuenean, 1996an. Zibilizazio berria izango dela dio, kapitalismoari gaina hartuko diona. Epe luzeko proiektua. Sistema honek ekonomia berri bat izango du oinarrian –lanaren balioaren gainean eraikia, ez merkatuko salerosketan–, eta parte-hartze demokrazia. Oraingoz, munduan bi herrialdek baino ez diote proposamenari heldu.

**XXI. mendeko sozialismoa praktikara eramateko saioa bi herrialdeetan baino ez da egin, biak latinoamerikarrak: Venezuela eta Ekuador. Venezuelan bide horretan Oinarriko Industrien Ministerioarekin**

lanean hasita nengoen, duela hiru bat urte. Hainbat ingeniariarekin ere lan bilerak egin nituen. Eta aurrerago Ekuadorreko lehendakariarekin bildu nintzen. Berehala ulertu zuen proiektua, ekonomialaria delako. Politikari gehienek ez dakite ezer ekonomiaz, eta arazo izaten da hori, baina Rafael Correa ekonomialaria izateaz gain, ekonomialari ona da.

**Eta Venezuelako Gobernuak pausorik eman al du XXI. mendeko sozialismoa martxan jartzeko? Izan ere badira hiru urte Hugo Chávezek zibilizazio**

